



EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 22koa, Hezkuntzako sailburuordearena; honen bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei deialdi egiten zaie ikastetxe publikoen barne-antolamendua berriztatzeko proiektu pilotu batean parte hartzeko (HAUSPOA).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila berriztatze-prozesuak bultzatzen ari da unibertsitaterik kanpoko ikastetxeetan, deialdi espezifikoaren bidez zein zuzenean aldaketak sartzeko jarduerara, proiektu eta esperientziak proposatuta, irakaskuntza- edo antolakuntza-praktikak hobetuko dituztenak eta, horrenbestez, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzea ahalbidetuko dutenak.

Ikastetxe bakoitzean zehazten da hezkuntzaren kalitatea. Ildo horretan, aldaketaren gunea ikastetxea izateak kalitatearen hobekuntza alderdi bikoitz batetik ikustea dakar: alde batetik, ezarri nahi diren berriztapenak ikastetxe bakoitzaren ezaugarrietara egokituko direla bermatzeko premia eta, bestetik, arrakasta izan duten esperientzia guztiak ez direla nahitaez ikastetxe guztietara orokortzeko modukoak edo nahikoak aldaketa bultzatzeko hezkuntza-sisteman.

Horrenbestez, hobekuntzak sartzeko aldaketa eskatzen du ikastetxe bakoitzaren barne-baldintzetan, ez bakarrik ikasgelaren jarduerari edo lan-metodologiari dagokionez, baita irakaskuntzaren prozesua eraginpean hartzen duten beste alderdi garrantzitsuei dagokienez ere: eskola-denboren eta baliabide material eta giza baliabideen kudeaketa, espazioen antolamendua, eta abar.

Esperientziak zein horri buruzko ikerketa ugariak erakusten dutenez, baliabideek irakaskuntzan duten garrantzia eta inpaktua mugatua da. Izan ere, baliabideak izatea beharrezko baldintza da, baina ez nahikoa, emaitzen hobekuntza ahalbidetzeko, eta hori horrela, beharrezkoa izango da lehen adierazitako alderdietako batzuei begiratzea.

Bestalde, ezin da ahaztu gizartearen izandako aldaketa eta aurrerabideek hezkuntzaren ikuspegia zabaltzeko dutela, eta hori horrela, hezkuntza formala ez da orain ikaskuntzaren hezkuntza-alor edo -esparru bakarra, eta horrenbestez, espazioaren eta eskola-denboraren kontzeptua iraskastorduetik haratago doa. Izan ere, hezkuntza-plataforma digitalen bidez, ikasgela kanpoaldera zabaltzen da eta ikasleek eta haien familiek edozein unetan izan ditzakete baliabide gehiago, eskolara bertaratzearen mende soilik zertan egon gabe. Era berean, ikasleak bere bizitza ikastetxetik kanpo garatzen duen ingurunea garrantzitsua da ikaslearen sozializazioaren eta ikaskuntzaren garaian. Ikaslearen garapen integratzean ikastetxeak bete behar duen funtzioa berriz aztertzea eskatzen du horrek guztiak.

Azkenik, ikastetxe efizientearen ikuspegitik beharrezkoa da eskola-komunitatearen ikuspegi integrala izatea, komunitatea osatzen duten pertsona guztiak arrakastaren sustatzaile bihurtzeko. Izan ere, ulertu behar da guzti-guztiak hobekuntzarako faktore potentzialak direla, eta, sektore bakoitzak bere funtzioak betetzen baditu ere, proiektu erkide batek gidatu behar ditu guztiak ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen antolamendu akademikoa gaur egun mugatzen duten alderdietako asko (indarreko ordutegia eta eskola-egutegia, irakas-eskolen



iraupena, espazio eta baliabideen erabilera, eta abar) denborak aurrera iraun dute aldaketa handirik izan gabe. Antolamendu-eredu berriak esperimentatzea lagungarria izan daiteke ikasleen emaitzak hobetzeko

Ikastetxeen jardun ekintzailea eta esperimentazio-nahia bultzatu eta ahalbidetu behar du Administrazioak, egungo lege-esparruak horretarako eskaintzen dituen malgutze-posibilitateak erabilia. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren 14. artikulua oro har ezarritakoaz bestelako jardunaldiak baimentzeko gaitzen du Hezkuntza Administrazioa.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

1. artikulua.- Deialdiaren xedea.

Ebazpen honen xedea da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeei deialdia egitea ikastetxeen barne-antolamendua berritzatzeko esperientzia pilotu batean parte har dezaten.

2.- Esperientziaren helburuak

Esperientziaren helburua da gaur egun indarrean dagoen esparrua malgutzea ikastetxeetako hezkuntza-jarduerak eta eskola-denborak berriz antolatzea ahalbidetzeko, eskola-arrakasta hobetzearen mesedetan. Hasteko, eta ikastetxeek proposa ditzaketen aldaketen inpaktua neurtzeko, esperientzia pilotu bat abiaraziko da 2013-2014 ikasturterako.

Honako hauek dira esperientzia horrekin lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Eskola-denboren eredu berriak praktikan jartzea eta ebaluatzea.
- Ikastetxeen kalitatea hobetzea (bikaintasuna), autonomia gehituta.
- Emaizten hobekuntza sustatzea.

3. artikulua.- Deialdiaren ezaugarriak.

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxek parte hartu ahalko dute gehienez esperimentazioan. Kalitate kontrastatuko proiektu gehiago dauden neurrian, kopurua gehitu ahalko da.

2.- Esperientzia pilotuaren iraupena ikasturte bat izango da eta, ikasturtea amaitzean, ikastetxe parte-hartzaile bakoitzaren proiektuaren helburuen betetze-maila balioetsiko duen ebaluazio-prozesua egingo da. Ebaluazio-prozesu hori gaitzitzea ezinbesteko baldintza izango da ikastetxeari baimena eman diezaioten ondorengo ikastaldietan esperientziarekin jarraitzeko.

4. artikulua- Proiektua lantzea eta aurkeztea.

1.- Ikastetxearen zuzendaritzari egokituko zaio esperientzia pilotu honetan parte hartzeko proiektua eskatzea eta lantzea.



2.- Dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari zuzendu beharko zaio eskaera.

3.- Eskaerak aurkezteko epea 2013ko ekainaren 18an bukatuko da.

4.- Proiektuaren beraren helburuak, eskola-arrakasta hobetzeko proposatzen diren antolamendu akademikoan egin beharreko aldaketak eta horien justifikazioa bilduko dira proiektuan. Adierazleak ere bilduko dira proiektuaren betetze-maila neurtzeko.

5. artikulua- Proiektua aurkezteko ezinbesteko eskakizunak.

Irakasleen Klaustroak, Ordezkaritza Organo Gorenak eta ikastetxeko gurasoen elkarte indartsuenak (familia gehien biltzen dituenak) onartu beharko dute esperimentazio-proiektua.

6. artikulua- Ikastetxearen proiektuaren egitura.

Ikastetxeak esperientzia pilotuan parte hartzeko aurkezturiko proiektuak koherentea behar du izan Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren helburuekin eta hura hobetzeko planarekin, eta Ikastetxearen Urteko Planean bilduta egon behar du

Bereziki, honako idatz-zati hauek bildu beharko ditu gutxienez:

a) *Irakasleen irakastordutegia aldatzeko proposamenak*. 2012-2013 ikasturtearen ordutegitik abiatuta, 2013-2014 ikasturterako proposaturiko aldaketak zehaztuko dira. Honako puntu hauek zehaztu beharko ditu proposamenak:

a.1) Asteko 30 orduak antolatzeko irakastordutegi berria. Idatz-zati honetan, asteko irakastordutegi jarraitua antolatu ahalko dute ikastetxeek. Irakastordutegiko aldaketak ez du murrizketarik ekarriko ikasturte osoaren irakas-denboraren kantitatean. Horretarako, ikasturtearen ordutegia berrantolatzeko autonomia izango dute ikastetxeek.

a.2) Irakasteko ez den ordutegiaren proposamena. Honako hauek zehaztuko dira, besteak beste, idatz-zati honetan: ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei arreta emateko ordutegiak, ikasketa baimenduko gelak, ikasleentzako arreta pertsonalizatua, errefortzu-jardunak tutoretza-lanean, irakasleen koordinazioa, familientzako arreta, liburutegiak, informatika-ikasgelak, aretoak, jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak, eta abar. Modu al bait zabalenean zehaztu behar dira helburuak, adierazleak, edukiak eta jarduera eta baliabide horien guztien erabilera.

Idatz-zati honetan proposatzen diren jarduera guztietan parte hartuko duten irakasleak eta pertsona arduradunak zehaztu beharko dira. Era berean, ikasle hartzaileak nor diren zehaztuko da jarduera bakoitzean.

Era berean, proiektuan zehaztu behar da nola erabiliko diren irakasteko ez den ordutegian ikastetxearen espazioak eta baliabideak, eta jarduera horien koordinazioan eta espazio eta baliabide horien erabileran parte hartuko duten pertsonak ere adierazi behar dira.

b) *Irakasleen dedikazio-orduak berrantolatzeko proposamenak*. Proiektuan argi zehaztuko da irakasleen dedikazioaren berrantolamendu integraleko ikastetxearen proposamena ikasleen ordutegian proposatzen diren aldaketen bideragarritasuna bermatzeko: irakastordutegia,



irakasteko ez den ordutegi presentziala, eta abar. Ildo horretan, honako hauek zehaztuko dira: irakas-dedikazioko orduen tarteak; irakasteko ez diren funtzioen ordutegiaren antolamendua (mintegiak, prestakuntza-orduak, errefortzu-premiak dituzten ikasleentzako arreta, irakasgai gainditu gabeak dituzten ikasleentzako arretak, gurasoak hartzeko orduak, bilerak, ...).

Irakasleen lan-baldintzak errespetatuko ditu berrantolamenduak. Horrela, ikasleentzat proposaturiko irakas-jarduera eta irakasteko ez dena berrantolatzea bermatzeko eta berrantolatzeko, irakasleen iritzia beharko da. Ildo horretan, zuzendaritza-taldeak irakasleekin adostu ahalko ditu formula berriak irakasleen dedikazio-araudia aplikatzeko, proiektuaren hezkuntza-arrakasta bermatze aldera.

Ikasleen irakastordutegi jarraituko proposamenek ez dute murrizketarik eragingo irakasleen dedikazio-orduetan.

c) *Ikasleen eta familien parte-hartzea sustatzeko estrategiak.* Irakasteko ez den eskola-ordutegiaren berrantolamendua eta irakastorduaren aldaketa bat lortzeko, ezinbestekoa da familien gehiengo zabalaren adostasuna, eta ikastetxeko Ikasleen Gurasoen Elkarte indartsuenak proiektua onartzearen bidez zehaztuko da hori. Era berean, oso beharrezkoa da gurasoak inplikatzeko eskolaz kanpoko jardueren eskaintza erakargarria berrantolatzeko.

Dena den, helburua irakasteko ez diren jardueretan ikasleen parte-hartze albait handiena bultzatzea bada ere, aukerakoa izango da parte-hartze hori, eta familien esku geratuko da beren seme-alabek ikastetxearen jardueretan parte hartuko duten, edo denbora hori beste zeregin batzuei eskainiko dioten.

Eskola-komunitatearen parte-hartzea eta ikasle eta familien inplikazioa sustatzeko estrategiak zehaztu beharko ditu proiektuak, ikastetxearen antolamendua bermatzeko funtsezkotzat jotzen baita.

Ikasleen parte-hartzeari dagokionez, proiektuak argi deskribatuko ditu zein diren ikastetxeak antolatzen dituen jarduerak eta horien hartzaileak, baita ikaslearen ekimen autonomoa eta horretarako eskainitako baliabideak garatzeko proposaturiko jarduerak ere.

Proiektuaren bideragarritasuna bultzatze aldera, tokiko eta lurraldeko erakundeen, fundazioen, erakundeen eta abarren laguntza eskatu eta kudeatuko du Ikasleen Guraso Elkarteak.



7. artikulua- Zuzendaritza-taldearen lidertza eta funtzioak.

Zuzendaritza-taldearen konpromisoa eta lidertza ezinbestekotzat jotzen da proiektu pilotuan parte hartzeko, eta horrenbestez, honako funtzio espezifiko hauek bete beharko dituzte:

- Sektore guztietako ordezkarien iritzi eta ekarpenak biltzea proiektua idatzi aurretik.
- Irakasleen parte-hartzea bultzatzea, proiektuaren proposamen berritzaileenak zehazteko.
- Proiektuaren informazio-prozesua kudeatzea, eskola-komunitatea osatzen duten sektore guztiekin izan beharreko elkarriketa jarraitua bermatuta.
- Familien, irakasleen, ikasleen eta abarren parte-hartze demokratikoa bermatzea, proiektua onar dezaten. Komunitatearen hezkuntza-agente guztiek proiektuaren elaborazioan parte hartzeko formulak bilatuko dira.

Horretaz gain, ikastetxea esperientzian parte hartzeko aukeratzen badute:

- Proiektuaren etengabeko jarraipena burutzea, Berritzegunearen erreferentziazko aholkularitzaren lankidetzarekin.
- Proiektuaren azken ebaluazioko prozesuan parte hartzea eta Ikuskaritzarekin lankidetzan aritzea.

8. artikulua.- Eskaerak egitea eta aurkeztea.

Ikastetxeko zuzendariak aurkeztu beharko du proiektu pilotuan parte hartzeko eskaera, behar bezala sinatuta eta zigilatuta, eta dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari zuzendu beharko zaio. Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira eskaerarekin batera:

- a) Proiektuaren deskribapen xehatua.
- b) Zuzendaritza Taldearen, Ordezkaritza Organo Gorenaren, Klaustroaren eta ikastetxeko Ikasleen Guraso Elkartearen Zuzendaritza Batzordearen aktak, organo horiek guztiek proiektuaren aurkezpena onartu zutela biltzen dutenak.
- c) Proiektuan parte hartzeko konpromisoa, proiektuan esku hartuko duten irakasle guztiguztiek sinaturikoa.

9. artikulua.- Hautaketa Batzordeak

1.- Hautaketa Batzorde bat eratuko da eskaerak hautatzeko, horretarako propio sorturikoa, eta proiektu pilotuan parte hartzeko aukeraturiko ikastetxeen zerrenda proposatuko dio Hezkuntzako sailburuordeari. Honako hauek osatuko dute Batzordea:

- a) Ikastetxeetako zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona, presidente-lanetan.
- b) Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona
- c) Ikuskatzaile nagusia
- d) Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendaturiko Berritzeguneko zuzendaria.
- e) Ikastetxeetako Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa jardungo duena



2.- Hiru Lurralde Historikoetako bakoitzean balioespen-batzorde bat eratuko da, eta Lurraldeko ikastetxeen eskaerak aztertu eta balioetsi ondoren Hautaketa Batzordeari igorriko dio proiektuen zerrenda, puntuazio-ordenaren arabera ordenatuta, betiere deialdi honetan 11.1 artikuluan xedaturikoa betetzen badute.

3.- Honako pertsona hauek osatuko dute balioespen-batzordea:

a) Hezkuntzako Lurralde ordezkaria edo hark eskuordetzen duen pertsona, batzordeko presidente-lanetan jardunez.

b) Dagokion Lurralde Historikoko Ikuskatzaileburua, edo hark eskuordetzen duen ikuskatzailea.

c) Ikastetxeetako arduraduna, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

d) Hezkuntza Berriztatzeko Programen Lurralde ordezkaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona, Batzordeko idazkari-lanetan jardunez.

e) Zuzendari bat Bigarren Hezkuntzako zuzendaritza egonkorren artean.

f) Berritzeguneko zuzendari bat edo hark eskuordetzen duen aholkulari bat.

10. artikulua- Baremoa eta baremazio-irizpideak.

Honako baremoaren arabera balioetsiko ditu Batzordeak aurkezturiko proiektuak:

a) Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuak arauturiko dagokion hautaketa-prozesuaren ondoren lau urteko aldirako izendaturiko edo izendatzeke dagoen zuzendaritza egonkorra duten ikastetxeak: *5 puntu*

b) Ikasle sozio-ekonomiko behartsuak gehiengo diren ikastetxeak (ikasle bekadunen % 50 baino gehiago): *5 puntu*

Aurreko idatz-zatiei dagokien puntuazioaren esleipena ofizioz egingo da, Hezkuntza Administrazioan eskuragarri dauden datuen arabera.

c) Irakasleen parte-hartzea proiektuan:

- Irakasleen gutxienez % 25ek parte hartzen du proiektuan: *5 puntu*
- Irakasleen gutxienez % 50ek parte hartzen du proiektuan: *15 puntu*
- Irakasleen gutxienez % 75ek parte hartzen du proiektuan: *25 puntu*

d) Adieraziriko eskola-komunitatearen parte-hartzea ikastetxeko Ikasleen Guraso Elkarteak antolaturiko eskolaz kanpoko jardueren eskaintza bat proiektuan bilduta: *gehienez 15 puntu*, aurreikusiriko jardueren kopuruaren eta kalitatearen arabera.

e) Aurkezturiko proiektuaren balioespina: *Gehienez 50 puntu*. Honako alderdi hauek kontuan hartuko dira proiektuaren baliospenean:



1. Irakastorduen osatze-jarduerak.

Ikastetxearen proposamen berritzaileak kontuan izango dira irakastorduak osatzeko garaian. Bereziki balioetsiko dira hezkuntza inklusiboa indartzea helburu duten jarduerak.

Proiektuak ikastetxearen hobekuntza-planarekin duen lotura-maila balioetsiko da

Era berean, hezkuntza ez-formala indartzeko ikastetxeak proposaturiko jarduerak balioetsiko dira. Ildo horretan, lehentasuna izango dute ikastetxeak eskola curriculumean bere eskumenak garatzeko dauzkan espazioen erabilera berritzailea ahalbidetzen duten jarduerak izango dute lehentasuna.

Irakasleen koordinazioa eta talde-lana bermatzeko ikastetxeak egiten dituen planteamenduak ere balioetsiko dira.

2. Irakastorduak hobetzeko irizpideak. Irakasgaien saioen antolamenduari buruzko ikastetxearen proposamen berritzaileak izango dira kontuan, eta betiere saio horien ezaugarriak kontuan hartuta (iraupena, banaketa eta abar), baita ikaslearen arreta-ahalmenean duten eragina eta aukera metodologikoekiko egokitzapena ere.

3. Ikastetxeko espazio eta baliabideen erabilera optimizatzea. Espazio eta baliabideen optimizazioari buruzko alderdiak biltzen dituzten proposamenak balioetsiko dira, haien erabilera eta aprobetxamendua ahalbidetuz irakasteko ez den ordutegian.

11. artikulua.- Hautaturiko ikastetxeen zerrenda.

1.- Hautatua izateko, ikastetxeak aurkezturiko proiektuak gutxienez 25 puntu lortu beharko ditu baremoaren e) idatz-zatian, baita gutxienez 50 ere baremoa osorik hartuta.

2.- Aurreko idatz-zatian aipaturiko eskakizunak biltzen dituzten puntuetatik guztizko puntuazio handiena lortu dutenak hautatuko dira, deialdi honetan bilduriko ikastetxeen gehieneko kopurura iritsi arte.

3.- Baremoaren osotasunean puntu-berdinketa izanez gero, berdinketa hausteko honako irizpide hauek ondoz ondo aplikatuta ordenatuko dira berdinduriko ikastetxeak:

- a) Puntuazio handiagoa proiektuaren balioespenean.
- b) Proiektuan parte hartzen duen ikastetxeko irakasleen ehuneko handiagoa.
- c) Eskola-komunitatearen parte-hartzearen idatz-zatian lorturiko puntuazio handiena.
- d) Ikasle sozialki behartsuen ehuneko handiena.



12. artikulua- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren lankidetzak.

1.- Ikastetxeetako eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren, Berritzeguneeen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren aholkularitza eta laguntza teknikoa izango dute hautaturiko ikastetxeek proiektua garatzeko. Era berean, ikastetxeek sare batean elkarrekin lan egiteko aukera bultzatuko da.

2.- Proiektuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan izanda, 3 irakastorduko ordu-kreditua izango dute hautaturiko ikastetxeek (DBHko gutxienez 8 talde dauzkaten ikastetxeak), edo 6 irakastordukoa (DBHko 9 talde edo gehiago dituzten ikastetxeak), eta proiektuaren jarraipena egiteko, sarean parte-hartzea bermatzeko eta proiektuaren azken ebaluazioko txostena betetzeko erabili beharko dute kreditu hori. Funtzio horiek betetzeko irakasle egokiak zehaztuko ditu zuzendaritza-taldeak eta haien artean banatuko du ordu-kreditu hori.

13. artikulua- Jarraipen- eta hobekuntza-batzordea

Proiektuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan izanda, Jarraipen eta Hobekuntza Batzorde bat sortuko dute ikastetxeek, honako pertsona hauek osaturikoa:

- a) Ikastetxeko zuzendaria
- b) Proiektuaren irakasle arduraduna, halakorik izanez gero
- c) Ikastetxeko aita edo ama bat
- d) Ikastetxeko ikasle bat
- e) Berritzeguneko pertsona bat
- f) Ikastetxeko ikuskatzailea

14. artikulua.- Proiektuaren ebaluazioa.

Hautaturiko proiektu guztiak 2013-2014 ikasturtearen hirugarren hiruhilekoaren ebaluatuko dira. Hezkuntza Ikuskaritzak egingo du ebaluazio-prozesua, eta Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez zehaztuko dira prozesuaren ezaugarriak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 22a

HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

Sin.: Arantza Aurrekoetxea Bilbao